



**2024 URTEKO UDAL AURREKONTUA  
GAUZATZEKO UDAL ARAUA**

**I. TITULUA. ARAU OROKORRAK ETA KREDITU ALDAKETAK**

- I. KAPITULUA. ARAU OROKORRAK**
- II. KAPITULUA. KREDITU ALDAKETAK**

**II. TITULUA. AURREKONTUA ERABILTZEA**

- I. KAPITULUA. ARAU OROKORRAK**
- II. KAPITULUA. AURREKONTU KUDEAKETA**
- III. KAPITULUA. ADMINISTRAZIO PROZEDURA**
- IV. KAPITULUA. FAKTURAZIO ELEKTRONIKOAREN PROZEDURA**

**III. TITULUA. SARRERAK**

**IV. TITULUA: AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA**

**V. TITULUA. KONTROLA ETA FISKALIZAZIOA**



## I. TITULUA: “ ARAU OROKORRAK ETA KREDITU ALDAKETAK”

### I. KAPITULUA ARAU OROKORRAK

#### **1. artikulua.- Denboraldia**

Aurrekontua onartzeko, kudeatzeko eta likidatzeko orduan honako arau hauetan xedaturikoa beteko da: Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Araua eta Aurrekontua Gauzatzeko Udal Arau hau, aurrerantzean Araua, Aurrekontuak duen indarraldi berdina izango duena

Aurrekontu hori luzatu behar izango balitz, Arau hau bete beharko da luzapenaren denboraldian ere.

#### **2. artikulua.- Esparru funtzionala**

Arau hau aplikatuko da, oro har, Udalaren aurrekontua gauzatzekoan, zehaztutako xehetasunak kontuan hartuz.

#### **3. artikulua.- Aurrekontu orokorra**

Honako hauek sartzen dira ekitaldi honetarako Aurrekontu Orokorrean:

- Hondarribiko Udalaren beraren aurrekontua
- Hondarribia Lantzen SA Sozietate Publikoa
- Arma Plaza Fundazioa

#### **4. artikulua.- Aurrekontuaren egitura**

Aurrekontu Orokorraren egiturak 21/2003 Arauan eta Gipuzkoako toki erakundeen kontabilitatearen arau esparrua ezartzen duen abenduaren 15eko 86/2015 Foru Dekretuan xedaturikoa beteko du.

Gastuen egoeran jasotako kredituak honako irizpide hauek erabilita sailkatu dira:

- a) Organikoa: Organoa.
- b) Programak: Gastu arloa, gastu politika, programa multzoa, programa eta azpiprograma.
- c) Ekonomikoa: Kapituluak, Artikuluak, Kontzeptuak eta Azpikontzeptuak.

Aurrekontu aplikazioa -sailkapen organikoa, programatikoa eta ekonomikoa biltzen dituen- izango da unitatea, kredituak, haien aldaketak eta gastuak egiteko eragiketak erregistroan jasotzerakoan.

#### **5. artikulua.- Kredituen lotura juridikoaren mailak**

Aurrekontu Orokorrean edo behar bezala onartutako haren aldaketetan zertarako baimendu diren, helburu zehatz horretarako bakarrik erabiliko dira gastuetarako kredituak, eta mugatzaileak eta lotesleak izango dira. Horrenbestez, ezin izango dira kreditu horien zenbatekoa baino gastu konpromiso handiagoak hartu, eta erabat deusezak izango dira aipaturiko arau hori hausten duten erabakiak, ebazpenak eta administrazio ekintzak, egon daitezkeen erantzukizunen kalterik gabe.

Ondoko puntuan zehaztutako lotura juridikoaren mailan egiaztatutako da muga horren betetzea:



**I. kapitulua:** lotura langileei dagozkien gastuetan bakarrik ezartzen da kapitulu mailan.

**II. kapitulua:** lotura programa eta kapitulu mailan ezartzen da. Hala ere, honako azpikontzeptu ekonomiko hauek ere lotuta gelditzen dira:

- 221.01 Energia elektrikoaren hornidura.
- 221.04 Gasa
- 222.01 Telefonoak
- 227.01 Eraikinen garbiketa
- 230.01 Dietak, lokomozioa
- 224.01 Aseguruak

**III. eta IX. kapituluak:** lotura organo mailan bakarrik ezartzen da kapitulu horietako kontu sail guztien artean.

**IV., VI., VII., VIII. kapituluak:** lotura programa eta azpikontzeptu mailetan ezartzen da.

#### **6. artikulua. Lotura juridikoaren ondorioak:**

Lotura maila berean dauden kontu sailei aplika dakizkiekeen gastuen kontabilitate kontrola kontu sail mailan burutuko da.

Lotura mailak ezarritako mugari begira egingo da gastuaren fiskalizazioa.

#### **7. artikulua.- Konpromiso kredituak**

Konpromiso kredituen egoera ekitaldian zehar konprometitu daitezkeen hainbat urtetarako gastuen multzoak osatzen du, eta haien onarpenak bide emango du beroriek ezarritako baldintzetan formalizatzeko.

Konpromiso kredituen egoerak adieraziko du haietako bakoitzaren guztizko zenbatekoa zein den eta zein ekitalditan gauzatzea aurreikusten den.

Etorkizuneko Ekitaldi bakoitzerako indarrean dauden Konpromiso Kredituen zenbateko metatua ezin izango da eragiketa arruntetarako baliabideen % 25etik gorakoa izan, 21/2003 Foru Arauaren 6.3.e) artikuluan eskatutako azterketaren ondorioz muga txikiagoa ezartzen denean salbu. Inoren baliabideekin finantzatutako konpromiso kredituak ez dira gastu gisa zenbatuko aurreko paragrafoko muga ondorioetarako.

Aurrekontuetan ezin izango dira sartu ekitaldi berean edo hurrengoan egikaritzen hasten ez diren Konpromiso kredituak.

Toki Erakundearen Administrazioaren Aurrekontuetan sartutako Konpromiso kredituak geroago esleitutako eragiketei badagozkie, eta horrenbestez, aurrez zehaztu ezin den zenbatekokoak direnean, Udalbatzaren Osoko Bilkurak baimena eman ahal izango du dagozkien kontratuak % 20ko hazkundearekin egiteko hasieran aurreikusitako eta/edo onartutako zenbatekoaren gaintetik, eta hasieran aurreikusitakoa baino urtebete gehiagorako, bakar-bakarrik beharreko tartea baldin badago artikulua honen 1. atalean finkatutako mugara iritsi arte, edo hazkundera beste kreditu konpromiso batzuen minorazio korrelatiboarekin konpentsatuta gelditzen bada. Kasu horretan, dagokion kreditu aldaketa onartzeko ahalmena emango zaio alkateari.

Udalbatzaren Osoko Bilkurak onartuko ditu Konpromiso kredituak eta behar bezala eta bereiz jasoko dira kontabilitatean.



Kreditu konpromisoen egoeran ez dira sartuko langileei, finantza kargei, zorpetzetik etorritako amortizazioei, ondasun higiezinaren alokairuarekin loturiko konpromisoei dagozkien gastuak, ez eta gastu iraunkorrak eta traktu jarraitukoak ere.

## II. KAPITULUA KREDITU ALDAKETAK

### **8. artikulua.- Kredituak handitzea**

Kreditu handigarri gisa hartuko dira, 21/2003 Foru Arauaren 24. artikulua araberako, hasiera batean izaera mugatzailea izanik, haien zenbatekoa handitu daitekeenean, horretarako ezarritako baldintzak bete ondoren, eta horren inguruan indarrean dauden xedapenei jarraiki, delako kredituarekin edo kredituekin zuzenean loturik dauden diru sarreraren egiazko bilketaren arabera.

Bereziki, honako kontu sail hauek dira handigarriak, honako honen arabera:

a) Delako kredituarekin edo kredituekin zuzenean loturik dauden diru sarreraren egiazko bilketa.

Gastuen kontu saila:

1 0407.227.09.932. 00 C. P.S. DIRU BILKETA

Sarreraren kontu saila:

2 0407.392.01.932.00 HERTSATZE ERREKARGUAK

b) Obren egikaritze subsidiarioa.

Gastuen kontu saila:

1 0109.226.08.150.00

OBREN EGIKARITZE SUBSIDIARIOA

Sarreraren kontu saila:

2 0407.399.04.931.00

OBREN ETA INST. ITZULKETA

Kredituak handitzeko beharrezko espedientea tramitatuko da. Hartan egiaztatu beharko da sarreraren Aurrekontuan aurreikusitakoak baino eskubide handiagoak tinko ezagutzen direla eta haiek handitu nahi den kredituarekin loturik daudela.

Udal Aurrekontuarekin loturiko kredituak handitzeko espedienteak Alkateak onartu behar ditu, Kontu hartzaileak beharrezko irizpena eman ondoren. Udalbatzaren Osoko Bilkurari egiten duen hurrengo bileran emango zaio horren berri.

### **9. artikulua.- Kreditu aldaketak**

Lotura juridikoaren maila gaintzen duen gasturik egin nahi izanez gero, aurrekontu kreditu nahikoa ez dagoenean, dagokion kreditua aldatzeko espedientea tramitatu beharko da Gipuzkoako Toki Erakundearen aurrekontuei buruzko 21/2003 Foru Arauaren 28. artikuluan aipatutakoetatik, Aurrekontua Gauzatze Arau honetan jasotako xehetasunak estu-estu beteta.

Aurrekontu Orokorrek osatzen dituzten Gastuen eta Sarreraren egoeren aldaketak bi motatakoak izan daitezke:

- Gastuen egoera horien guztizko zenbatekoan eraginik ez duten aldaketak, Kreditu Transferentzien erregimena bete behar dutenak.



• Ukituriko egoeren guztizko zenbatekoa aldatzen dutenak, honako erregimen hauek bete behar dituztenak:

- Kreditu gaikuntza
- Kreditu txertaketa
- Bajak ezeztatzeagatik
- Kreditu Gehigarriak
- Hitzarmenak
- Kreditu handitzeak

Edozein kreditu aldatu ahal izateko, zergatik aldatu nahi den arrazoitu beharko da, bai eta azaldu ere aldaketa horrek nolako eragina izango duen aurrekontua onartzerakoan finkatutako helburuak lortzeari begira.

Kreditua aldatzeko espediente guztien gainean eman beharko du iritzia udal Kontu hartzaileak, eta ondoko ataletan araututako onarpen tramiteak bete beharko dituzte espediente horiek.

### **10. artikulua.- Kreditu transferentziak**

Gastu bat egin nahi izanez gero hasierako kreditua behar adinako ez denean, baina kreditua lor badaiteke lotura juridiko maila desberdineko beste kontu sail batzuetatik Gastuen egoerako osoko zenbatekoa aldatu gabe, kredituen transferentziara joko da.

Beste aurrekontu sail batzuk sortu beharra ekar dezakete kreditu transferentziek.

Udal Aurrekontuetan kreditu transferentziak Alkateak onartuko ditu, baldin eta programa bereko kontu sailen artean egiten badira, inbertsio errealetarako aurreikusitako esleipenak murrizten dituztenak izan ezik, horiek Osoko Bilkurak onartuko baititu.

Programa desberdinetako kontu sailak ukitzen dituztenean, Udal Aurrekontuetako kreditu transferentzien espedienteak Alkateak onartuko ditu aldaketen aldaera metatuak jatorriko eta xedeko programetan hasieran aurreikusitako izendapenen % 25 gainditzen ez duenean, inbertsio errealetarako esleipenak murrizten dituztenean izan ezik.

Gainerako kasuetan Udalbatzaren Osoko Bilkurak hartuko du erabakia.

Honako muga hauek izango dituzte kreditu transferentziek:

- Ez dituzte murriztuko transferentzia erregimenaren arabera edo kreditu gehigarrien bidez gehitutako ordainketa kredituak, ez eta kreditu konpromisoa Udal Arau honen 8.2 artikulua xedaturikoaren arabera handitua izan dutenak.
- Ez dituzte handituko beste transferentzia batzuen bidez murriztuak izan diren kredituak.
- Handigarri gisa kalifikatutako kredituak murriztu ahal izango dituzte kalifikazio hori galtuta, eta horrenbestez, gero ezin izango dira handitu.

Aipaturiko muga horiek ez dute eraginik izango langileriaren kredituekin loturiko kreditu transferentzietan, eta ez dira aplikatuko Udalbatzaren Osoko Bilkurak onartutako administrazio berrantolakuntzek eragindako transferentziak direnean.

### **11. artikulua.- Kreditu gaikuntza**

Aurrekontuetako gastu egoeretan kreditua sortu ahal izango da aurrekontuetako sarrera egoeretan aurreikusi ez eta ekitaldian zehar sarrerak lortu direnean edo sarreren kopuruak aurreikusitakoa gainditzen duenean.



Kreditu berrien sortzaile izan daitezke, edo lehendik daudenak handitu ditzakete, ondoko eragiketa hauetatik etorritako sarrerek:

a) Pertsona fisikoen eta juridikoen ekarpenak edo ekarpen konpromisoak, Udalarekin batera, haien helburu edo xedearen barnean dauden gastuak finantzatzekoak.

Beharrezkoa izango da ekarpena egiteko eskubidea aitortua izatea edo konpromisoa formalizatzea.

b) Udal Ondareko ondasunak besterentzea, beharrezkoa da eskubidea aitortua izatea. Kapital eragiketen finantzaketarako erabiliko dira betiere.

c) Zerbitzuak ematea, beharrezkoa da eskubidea aitortua izatea; baina eskubideak egiaz biltzeko baldintzaren baitan egongo da kreditu horien erabilgarritasuna.

d) Maileguak berreskuratzea, baina eskubideak egiaz biltzeko baldintzaren baitan egongo da kreditu horien erabilgarritasuna.

e) Bestelako ekarpenak, hala badagokio, beste Erakunde Publiko batzuen Aurrekontu Orokorraren kargu jasotzen direnak edo pertsona edo erakunde pribatuetatik datozenak. Eskubidea aitortu beharko da.

f) Behar ez bezala egindako eta amaitutako ekitaldiei dagozkien ordainketen itzulketak. Itzulketaren ordainketa egiaz egin beharko da.

Kreditu gaikuntza egiteko, beharrezko espedientea abiaraziko du dagokion zerbitzuaren administrazio unitate kudeatzaileak. Hartan kobrantzen egiazotasuna edo konpromisoaren irimotasuna justifikatuko da, bai eta handitu behar den kontu saila ere.

Lortutako sarrerek amaierako izaera dutenean edo handigarriak diren kredituak finantzatzen dituztenean, kreditu gaikuntza Alkateak baimenduko du, eta gainerako kasuetan Udaltzaren Osoko Bilkurak izango du ahalmen hori.

## **12.-artikulua.- Kreditu txertaketa**

Udalaren Gastuen Aurrekontuan txertatu ahal izango dira, kasu bakoitzean, aurreko ekitaldiko gastuen aurrekontuko kredituak, baldin eta dagoeneko aintzatetsitako obligazioak betetzera atxikita ez badaude eta honako kasu hauetakoren bati badagozkio:

a) Transferentzia baimenduaren eta onartutako kreditu gehigarrien xede izan diren kredituak, bi kasuetan, ekitaldiko hiruhilekoan emanak direnean.

b) Erabilitako gastuei dagozkien kredituak, arrazoi justifikatuak izanda obligazioa hartu ezin denean (D fasean dauden kredituak).

c) Gaitutako kredituak eta lotutako sarreraren mendeko beste kreditu batzuk.

d) Kapital-eragiketengatik kredituak (gastuen aurrekontuaren sailkapen ekonomikoaren 6., 8. eta 9. kapituluetan sartutako aurrekontu-aplikazioetatik datozen gerakinak, baimenduta edo konprometituta dauden kontuan hartu gabe).

Barneratutako kredituek jatorrizko Aurrekontuan edukiko zuketuen helburu bera edukiko dute.



Kreditu gerakinen barneratzea horretarako finantza baliabide nahikoa daudenean soilik egingo da. Gerakinak barneratzeko ez baldin badago jatorrizko ekitaldiko finantza baliabiderik, Alkateak, Udal Kontu hartzaileak bere iritzia eman ondoren, aurreko ekitaldiko konpromisoen arabera ezarriko ditu txertatu beharreko ekintzen lehentasunak.

Barneratutako kredituak, barneratu diren ekitaldiaren barnean burutu beharko dira, eta ondorengo barneratzerik ez da egingo, amaierako sarrerekin finantzatzan diren kapital eragiketak direnean izan ezik.

Era berean, barneragarriak diren kredituak ekainaren 30a baino lehen dagozkien aurrekontuetan barneratu ez badira, indargabeturik geldituko dira.

Onarturiko ekitaldian konprometitu ez eta konpromiso kredituei dagozkien gastuen aurrekontuko kredituak direnean, haien barneratzeak konpromiso kredituen barneratze automatikoa ekarriko du.

Kreditu gerakinen barneratzea Alkateak onartuko du, Udal Kontu hartzaileak bere iritzia eman ondoren. Erabaki hori hartu den unean betearaziko da, eta egiten duen hurrengo bileran horren berri eman beharko zaio Udalbatzaren Osoko Bilkurari.

Kreditu-gerakinak aurrekontua likidatu aurretik sartu ahal izango dira, baldin eta atxikitako finantzaketa duten gastu-kredituak badira.

### **13. artikulua.- Bajak ezeztatzeagatik**

Ezeztatzeagatik baja ematea Gastuen aurrekontua aldatzea da, Aurrekontu sail bati esleitutako kredituan murrizketa erabatekoa edo partziala dakarrenean.

Alkateak irizten badio kreditu baten saldoa murriztu edo ezeztatu daitekeela zerbitzuari inolako kalterik egin gabe, ezeztatzeagatik baja emateko espedientea abiarazteko agindua eman ahal izango du eta dagokion kreditu atxikitzea ekarriko du horrek.

Kredituen baja eragin dezakete:

- a) Altxortegiko gerakin negatiboen finantzaketak.
- b) Kreditu gehigarrien finantzaketak.
- c) Udalbatzaren Osoko Bilkuraren beste erabaki batzuk betetzeak.

Horiek onartzea Udalbatzaren Osoko Bilkurak erabakiko du.

### **14. artikulua.- Kreditu gehigarriak**

Abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 34. artikulua arautzen ditu kreditu gehigarriak. Kreditu gehigarriak dira Gastuen Aurrekontuan egiten diren aldaketak; haien bidez kreditua esleitzen da hurrengo ekitaldirako utzi ezin den gastu zehatz eta jakin bat egiteko, gastu hori ordaintzeko krediturik ez dagoenean, edo kreditua izanda, nahikoa ez denean eta handitu ezin denean.

Kreditu gehigarriak puntu honetan aipatzen diren baliabideetako batekin edo batzuekin finantzatuko dira:

- Diruzaintzako gerakin likidoarekin.
- Diru sarrera berriekin edo aurrekontuko kontzepturen batean bildu diren guztira aurreikusitakoak baino sarrera handiagoekin, baldin eta egiaztatzen bada horiek normaltasun osoz egiten ari direla, amaierako izaera eduki behar dutenean edo dutenean izan ezik.



- Konprometitu gabeko beste aurrekontu sail batzuetan bertan behera utzitako edo murriztutako kredituekin, haien zuzkidurak murriztu daitezkeenean zerbitzuan kalterik eragin gabe.

Era berean, salbuespen gisa, eta 7/1985 Legearen 47.3 artikuluan zehaztutako quorumarekin hartutako erabakiarekin, gastu berriak edo gastu handiagoak finantzatzeko egiaz eskura dauden baliabidetzat hartuko dira, berariaz beharrezkotzat edo premiazkotzat adierazitako ohiko eragiketak direla-eta, 21/2003 Foru Arauaren 34.2 artikulua jasotako hiru baldintza horiek batera dituzten kreditu eragiketetatik etorritakoak.

### **15. artikulua.- Kreditu gehigarrien espedienteak tramitatzea**

Aldaketak xede dituen kredituen kudeaketaz arduratzen diren unitate administratiboek abiaraziko dituzte, Alkateak aginduta, eta Kontu hartzaileak bere iritzia eman ondoren.

Proposamenarekin batera, ekitaldian gastu hori egiteko beharra eta duen lotura juridikoaren mailan krediturik ez dagoela edo dagoena ez dela nahikoa justifikatzen duen memoria aurkeztuko da.

Proposatutako gastua zein baliabiderek finantzatu den adierazi beharko da, bai eta aurrekontuko zein aplikazio gehituko den, behar bezala zehaztuta..

Kreditu gehigarriaren espedientea, aurrekontu araudian eta Egikaritze Arau honetan zehaztutako tramite guztiak bete ondoren, Udaltzaren Osoko Bilkurara eramango da onar dezan, ondoren aipatzen diren balizkoetako bat ez bada, kasu horretan Alkatea izango baita eskumena duen organoa.

- Toki erakundearen aurrekontuaren % 5 baino metatze hazkunde handiagoa ez dakarten kreditu gehigarriak.
- Kreditu gehigarriak emateko erabakiak hondamen publikoengatik edo interes orokor bereziko antzeko arrazoiren batengatik hartzen direnean, berehala betearaziko dira, haien aurka susta daitezkeen erreklamazioen kalterik gabe. Prestazioaren hurrengo zortzi egunetan bideratu beharko dira erreklamazio horiek, eta ezetsizat hartuko dira epe horretan ez bazaio helegileari ebazpenik jakinarazten.

### **16. artikulua.- Hitzarmenen erregimena**

Udalak beste erakunde publikoekin egiten dituen Hitzarmenen ondorioz, hasiera batean aurreikusitako funtsen kopuru osagarriak jasoko balira, Alkateak baimenduko du dagozkien kredituen gaikuntza.

## **II. TITULUA: “AURREKONTUA GAUZATZEA”**

### **I KAPITULUA.- LEGE OROKORRAK**

#### **17.- artikulua.- Printzipio orokorrak**

Indarrean dagoen Aurrekontuan kreditua izateari hertsiki loturik egongo da gastuaren gauzatzea.

#### **18.-artikulua. Eragin esparrua**

Araudi hau, orokorki, udal zerbitzu eta sail guztietan aplikatuko da inolako salbuespenik gabe.





## **II. KAPITULUA- AURREKONTUAREN KUDEAKETA**

### **19. artikulua.- Kreditua atxikitzea**

Kreditua atxikitzea da, aurrekontu aplikazio bati dagokionean, gastu bat edo kreditu transferentzia bat baimentzeko saldo nahikoa ziurtatzen duen ekintza, zenbateko jakin batean, gastu edo transferentzia horretarako zenbateko berdineko erreserba eginez.

### **20. artikulua.- Gastua kudeatzeko faseak**

Honako fase hauetan egingo da Udalaren Gastu Aurrekontuaren kudeaketa:

- a) Gastua baimentzea.
- b) Gastua erabiltzea.
- c) Obligazioa aitortzea.
- d) Ordaintzeko agindua ematea.
- e) Egiaz ordainketa egitea.

Kontabilitateko agiriekin ondorioak izango dituzte kontu-hartzailtzak kontabilizatzen dituenean.

Hurrengo Kapituluan arautzen dira gastua onartzeko administrazio prozedurak eta eskumena duten organoak.

### **21. artikulua.- Gastua baimentzea**

Gastua baimentzea da gastu bat egin dadin baimentzen duen ekintza, zenbateko jakin edo ustezko baten arabera, aurrekontuko kreditu oso bat edo haren zati bat xede horretarako gordeta.

Gastuak baimentzean edo erabiltzean indarrean dagoen araudia beteko da, egin daitezkeen ordezkariak kalterik gabe.

### **22. artikulua.- Gastuak erabiltzea**

Gastua erabiltzeko ekintzaren bidez, alde aurretik baimendutako gastu jakin batzuk egitea erabakitzen da, aurrez zehaztutako zenbatekoan, hirugarrenetik eragin juridikoak ditu.

Gastuen erabilera onartzeko eskumena duen organoa aurreko artikuluan aipatutako bera izango da.

### **23. artikulua.- Obligazioa aitortzea.**

Obligazioa aitortzeko ekintzaren bitartez adierazten da erakundeari eska dakiokkeen kreditu bat dagoela aurretik baimendua eta konprometitua den gastu baten ondorioz.

Alkateak aitortu edo onartu behar ditu legez hartutako gastu konpromisoetatik etorritako obligazioak.

Gastuaren ezaugarriak direla eta, obligazioa baimentzea, erabiltzea eta onartzea aldi berean gertatuz gero, faseak metatu ahal izango dira, kontabilitateko "ADO" agiria tramitatuta.



Kontralistek egindako fakturak formatu elektronikoan aurkeztuko dira Gipuzkoako Lurralde Historikoko Foru Administrazioako Sarrera Puntu Nagusiaren bidez.

Fakturrek honako datu hauek izan behar dituzte gutxienez:

- Udalaren identifikazio argia (izena, IFZ).
- Kontralistaren identifikazioa, IFZ, sozietatearen izena eta helbidea zehatz adierazita.
- Fakturaren zenbakia.
- Faktura egin den eguna eta ordua.
- Horniduraren edo zerbitzuaren deskribapen nahikoa.
- Enkargua egin zuen zentro kudeatzailea.
- Gastu espedientearen zenbakia, esleipena egin zen unean jakinarazi zena.
- Fakturatutako zenbatekoa.
- Eragiketari aplikatutako zerga-tasa.

Fakturak hilabete bateko epean bidali behar dira jaulkipen datatik aurrera.

Kontu hartzailetza Saila izango da faktura eta ziurtagiri guztiak hartuko dituen eta kontabilitatean erregistratu ditu. Behin erregistratu ondoren, gastua kudeatzeko zentro kudeatzaileari igorriko zaizkio Zerbitzuburuak edo Arloko Teknikariak oniritzia eman diezaien. Ekintza horrek esan nahi du zerbitzua edo hornidura kontratuaren baldintzen arabera eman dela eta fakturak onartua izateko beharrek baldintzak betetzen dituela.

Faktura horiek adostu ondoren, udal Kontu hartzailetzara bidaliko dira fiskalizatu eta kontabilizatu daitezten. Alkateak onar ditzan aurkez daitezkeen faktura guztien zerrenda egingo da.

Fakturen onarpena Alkateak Dekretuaren eta sinaduraren bidez gauzatu da, horiek Kontu hartzaileak prestatutako zerrendan jasota.

Obra ziurtagiriei dagokienez, haiekin batera fakturak aurkeztu beharko dira, eta Udal Zerbitzu Teknikoen adostasuna beharko dute bi agiriek.

## **24. artikulua.- Betebeharrak aitortzeko behar diren agiriak**

**I. Kapituluko** gastuetarako, ondoko arau hauek bete behar dira:

- Nominak O agirizat hartuko dira.
- Gizarte segurantzaren kuotak dagozkien likidazioen bitartez justifikaturik gelditzen dira eta O agirizat hartuko dira.

**II. Kapituluko** gastuetan, ondasun arruntetan eta zerbitzuetan, oro har, fakturak izango dira O agirizat hartzen direnak.

Finantza-gastuetan (**III. eta IX. kapituluak**), banku-kontuan zuzenean zorduntzeak sortzen dituzten interesen eta amortizazioaren gastuak justifikatu egin beharko dira, eta finantza-koadroari egokitu.

Udalak ordaindu beharko dituen transferentzietan, arruntak nahiz kapital transferentziak izan (**IV. eta VII. Kapituluko**), obligazioa aitortzeko, diru laguntzak emateko araudian zehaztutako baldintzak bete beharko dira.



Inbertsio gastuetan (VI. Kapitulua), kontratistak faktura aurkeztu beharko du, behar denean obraren egiaztagiria ere erantsiz.

### **25. artikulua.- Ordainketa agintzea**

Ordainketa aginduaren bitartez, aitortutako eta likidatutako obligazio batean oinarrituz, ordainketa agintzaileak dagokion ordainketa agindua ematen du.

Udaleko ordainketak egiteko agindua ematea Alkatearen eskumena da.

Ordainketak, oro har, Diruzainak egiten dituen ordainketa aginduen zerrenden arabera aginduko dira, funtsak erabiltzeko planarekin bat, eta lehentasuna izango dute zorra ordaintzeko gastuek, langileria gastuek eta aurreko ekitaldietan hartutako obligazioek.

### **26. artikulua.- Ordainketa erregimena**

Arau orokor gisa, ordainketak banku transferentziaren bidez egingo dira hartzaileak Udal diruzaintzan horretarako emandako kontuan. Ordainketa horiek, arrazoi justifikatuak daudenean salbu, hilabete bakoitzaren 15ean eta 30ean egingo dira edo, hala badagokio, hurrengo lanegunetan.

Udal honek irekitako kontuetan funtsak erabili ahal izateko, ordainketa agintzailearen eta Kontu hartzailetzako eta Diruzaintzako titularren sinadura mankomunatu beharko da.

## **III KAPITULUA – PROZEDURA ADMINISTRATIBOA**

### **27. artikulua.- Administrazio-prozedura (A, D, O faseak).**

Nahitaez baimena beharko dute, kontratazio espediente baten xede izango diren gastu guztiek, bai eta lehia erregimenean ematen diren diru laguntzek, langileria hautatzeko deialdien onarpenak, eta abarrek.

Kontratazioaren kasuan, espedientearen hasieran “A” dokumentua tramitatuko da, lizitazioaren oinarritzko aurrekontuaren zenbatekoan, aribideko ekitaldiari egotz dakioken zatian.

Hirugarrenaren identitatea eta gastuaren zenbateko zehatza jakinda, “D” dokumentua izapidetuko da.

A eta D faseak pilatu ahal izango dira Toki Erakundeak lege hartutako konpromisoetatik etorritako gastuak badira, haietan egin beharreko zerbitzuaren, obraren edo horniduren kostua ezagutzen bada: kontratazio txikia, indarrean dauden traktu jarraituko kontratuak, hainbat urtetarako gastuak (konprometitutako urteko zenbatekoagatik), norgehiagokaren erregimena aplikatu behar ez zaien erakundeei egiten zaizkien transferentziak, eta errentamenduak, maileguen interesak eta amortizazioak.

Ondoren, eta obra, zerbitzua edo hornidura egiaz egiten den heinean eta, hala badagokio, diru laguntzaren xedea justifikatzen bada, tramitatuko dira dagozkien “O” agiriak.

### **28. artikulua.- Urteko kontratazio plana**

Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 28.4 artikulua xedaturikoaren arabera, sektore publikoko erakundeek, aurrekontu ekitaldi batean edo hainbat urteko denboraldietan garatuko duten kontratazio publikoko jarduera programatuko dute eta aurrez emango dute beren kontratazio plana ezagutzera, aurretiko informazio iragarki baten bidez. Erregulazio harmonizatua bete behar duten kontratuak gutxienez jasoko dira hartan.



## **29. artikulua.- Kontratu txikien alorreko funtzionamendua**

**Kontratu txikitzat hartzen dira 40.000 eurotik beherako balio zenbatetsia duten kontratuak, obra kontratuak badira, edo 15.000 eurotik beherakoak, hornidura edo zerbitzu kontratuak badira,** 9/2017 Legearen 229 artikulua, estatu mailako obra, zerbitzu eta hornidura zentralizatuari dagokienean, xedaturikoaren kalterik gabe. Era berean, kontuan eduki behar da kontratu horien epea ezin dela urte batetik gorakoa izan eta ezin izango dela luzatu.

Kontratu txikietan espedientea tramitatzeko kontratazio organoaren txostena beharko da, kontratuaren beharraren arrazoiak azaltzen dituena. Era berean, gastua onartu beharko da eta dagokion faktura jaso beharko da espedientean. Lege hori garatzen duten arauak eskatutako baldintzak beteko ditu fakturak.

Obra kontratu txikietan, gainera, obren aurrekontua aurkeztu beharko da, dagokion proiektua izateko beharraren kalterik gabe berariazko arauak hala eskatzen dutenean. Era berean, 235. artikulua aipagai dituen ikuskatze bulegoen edo unitateen txostena eskatu beharko da lanak obraren egonkortasunean, segurtasunean edo estankotasunean eragina badu.

Espedientean justifikatu beharko da ez dela kontratuaren xedea aldatzen ari kontratazio arau orokorrak aplika daitezkeen saihesteko. Arau hori bete den egiaztatuko du kontratazio organoak.

SPKLren 63.4 artikuluan aurreikusitako moduan argitaratuko dira kontratu txikiak.

6.000 €-tik gorako (BEZa barne) gastu arrunterako edo inbertsio gasturako kontratu txikia egiteko, espedientea aurreko artikuluetan xedaturikoaren arabera tramitatzeari gainera, 3 aurrekontu aurkezteko eskatuko da. Oro har, kontratazio txikien prozeduretan prezioa izango da balorazio irizpide bakarra.

Salbuespen gisa, eta dagokion txostenaren bidez dokumentu bidez justifikatu ondoren, gaitutako enpresa bakar bati kontsulta egin ahal izango zaio, baldin eta 3 aurrekontu lortzea ezinezkoa bada arrazoi teknikoengatik, hala nola patenteengatik, garapen informatiko propioengatik edo arrazoi artistikoengatik.

## **30. artikulua.- Inbertsio gastuak**

Oro har, inbertsioetat hartzen dira aktiboak areagotzeko, berritzeko, hobetzeko edo modernizatzeko jarduerak guztiak, ekoizpen gaitasuna, produktibitatea edo bizitza erabilgarria handitzen badute. Era berean, konponketa handien izaera izango dute, halakotzat harturik ondasun baten hasierako ezaugarriak berreskuratzeko egin behar direnak, urte batetik gorako erabilera aldiaren ondoren.

Aitzitik, eta garrantzi erlatiboaren printzipioaren arabera, oro har, gastu arrunt gisa tramitatu dira, aurreko baldintzak beteta ere, 1.000,00 €-tik gorakoak (BEZa barne) ez diren berritze edo konpontze jarduerak.

Proiektu teknikoa egiteko etorrerako gastuak inbertsioa jasotzen duen aurrekontu aplikazioari egotziko zaizkio. Hala eta guztiz ere, egin beharreko obra aurrekontu egoeran oraindik jaso gabe badago eta proiektu teknikoa izatea interesekoa bada (kostua ebaluatzeko, beste erakunde batzuekiko elkarlana kudeatzeko eta abarretarako), aurrekontu aplikazio generikoari egotzi ahal izango zaio proiektuaren kostu hori.

VI. kapituluaren jasotako proiektuak aurrera eramateko egutegia aurkeztuko dute kudeaketa zerbitzuek, inbentarioan jaso daitezkeen materialen erosketa izan ezik, gutxienez honako datu hauek adierazita:

- Enkarguaren data eta proiektuaren amaiera.
- Proiektuaren onarpen data.



- Esleipenaren data.
- Obraren hasiera data.
- Lehen ziurtapenaren data.
- Gastuaren egite erritmoa.
- Obraren entrega data.

### **31. artikulua.- Kalte-ordainak dietengatik, lokomozioagatik eta joan-etorriengatik**

Funtzionarioek eta kontratatutako langileek une bakoitzean aplikagarri den indarreko legeriaren arabera dagozkien kalte-ordainak jasotzeko eskubidea izango dute, hala badagokio.

Ahal den guztietan, garraio bide publikoak erabiliko dira joan-etorrietarako.

Alkateak eta gainerako kargu hautetsiek, udal barrutitik kanpo egiten dituzten joan-etorri ofizialetan, funtzionarioen eta langile kontratatuen kalte-ordain berdinak jasotzeko eskubidea izango dute.

Nolanahi ere, langileek eta kargu hautetsiek dokumentu bat bete beharko dute, eta hartan adierazi nora eta noiz joan diren, zer ordutan irten eta itzuli diren eta zein kudeaketa egin den. Dokumentu horietan zehaztuko da ezarritako tarifen arabera jaso behar den kalte-ordainaren zenbatekoa, eta gainera zerbitzuburuak edo zinegotziak edo Alkateak sinatu beharko ditu.

### **32. artikulua. Ikastaroetara joatea**

Arduradun politikoez eta/edo dagokion departamentuko teknikariek egingo dute baimentzeko proposamena, honako hauek adierazita, besteak beste:

- Ikastarora joan behar duenaren identifikazio datuak: izena eta deiturak, zein lanpostu betetzen duen eta abar.
- Ikastaroaren xedea, tokia eta iraupena.
- Matrikulazio kuotak eta dietetarako eta lokomozio gastuetarako kalkulaturako zenbatekoa. Ikastaroetara joatetik etorritako kalte-ordainen zenbatekoa zehazteko, zerbitzu arrazoietan oinarritutako kalte-ordainei buruzko ekainaren 13ko 121/2006 Dekretuak xedaturikoa beteko da.

### **33. artikulua.- Beren kargua dedikazio eskusibo edo partzialarekin burutzen duten batzarkideen ordainsariak.**

Kargua dedikazio eskusiboarekin edo, hala badagokio, partzialarekin burutzeagatik jaso beharreko ordainsari kontzeptuan, batzarkideek hileroko jasoko dute ordainsaria, 03021.100.01.912.00 Kargu hautetsien ordainsariak, kontu sailaren kargura.

Udalbatzak onartuko ditu beren kargua dedikazio eskusiboarekin, edo partzialarekin, burutuko duten batzarkideen kopurua eta dedikazio horren ehunekoak, bai eta dagozkien ordainsariak ere. Alkateak erabakiko du haien izendapena.

Udalbatzako langileentzat, oro har, onartzen den igoera berdina aplikatuko zaie ordainsari horiei ere.

### **34. artikulua.- Ekarpinak udal talde politikoei**

Udaleko talde politikoez aurrekontuko 0302/481.01/912.00 partidaren kargura Udalbatzak onartuko duen ekarpen bat jasoko dute hileroko.



### **35. artikulua.- Justifikatu beharreko ordainketak**

Dokumentu bidez egiaztatzea eskatzen duen printzipioaren salbuespen gisa, “*justifikatzeko*“ izaerarekin eman ahal izango dira aginduak eta dagozkien aurrekontu kredituei aplikatuko zaizkie.

Alkateari dagokio baimena ematea.

Hilabete bateko epean, jasotzaileek Kontu hartzailetzara eraman beharko dituzte ordainketa justifikatzen duten dokumentuak, inbertitu gabeko kopuruak itzuliz.

Justifikazioaren formari eta edukiari dagokienez, Kontu hartzailetzatik emandako jarraibideak bete beharko dituzte, kontuan hartuz, edonola ere, emateko garaian zuten helbururako soilik erabil daitezkeela funtsak eta egiaztatzeak jatorrizko dokumentuak izan behar dutela.

Funtsak zaintzeko erantzukizuna jasotzaileak izango du. Justifikatzeko aginduak emateko, ezinbesteko baldintza izango da jasotzaileak aurretik jaulkitako funtsik ez izatea justifikatu gabe.

## **IV KAPITULUA – FAKTURA ELEKTRONIKOAREN PROZEDURA**

### **36.-artikulua.- Eremu objektiboa**

Udalari ondasunak entregatu edo zerbitzuak eman dizkioten hornitzaile guztiek faktura elektronikoa egin eta igorri beharko dute. Nolanahi ere, enpresa horiek faktura elektronikoa erabili eta dagokion sarrera-puntu orokorraren bidez aurkeztu beharko dute, honako erakunde hauek badira:

- a) Sozietate anonimoak
- b) Erantzukizun mugatuko sozietateak
- c) Espainiako nazionalitaterik ez duten pertsona juridikoak eta nortasun juridikorik gabeko erakundeak.
- d) Egoitza Espainiako lurraldean ez duten erakundeen establezimendu iraunkorrak eta sukurtsalak, zerga-araudiak ezarritakoaren arabera.
- e) Aldi baterako enpresa-elkarteak
- f) Interes ekonomiko taldeak, interes ekonomikoko Europako taldeak, pentsio funtsak, arrisku-kapitaleko funtsak, inbertsio funtsak, aktiboak erabiltzeko funtsak, hipoteka-merkatua erregularizatzeko funtsak, hipotekak titulizatzeko funtsak edo inbertsioak bermatzeko funtsak.

Pertsona fisikoek, Erakundeek eta Kooperatibek fakturak paperean aurkeztu ahal izango dituzte, baldin eta 5.000 euro bitartekoak badira.

### **37. artikulua.- Gipuzkoako Lurralde Historikoko Foru Administrazioaren faktura elektronikoen sarrera-puntu orokorrari atxikitzea.**

Gipuzkoako Foru Aldundiaren faktura elektronikoen sarrera-puntu orokorrera sartzeko helbidea honako hau da:



<https://www.gfaegoitza.net/SarreraPuntua>

### **38. artikulua.- Faktura elektronikoaren formatua**

Faktura elektronikoen sarrera-puntuaren bidez igortzen diren faktura elektronikoak eta haien sinadura elektronikoa Gipuzkoako Foru Aldundiak une bakoitzean zehazten duen formatura egokituko dira.

### **39. artikulua.- Fakturen kontabilitate-erregistroaren kudeaketa**

Hondarribiko Udalaren esparruan, Kontu-hartzaitzak kudeatuko du fakturen kontabilitate-erregistroa.

Erregistro hori kontabilitate-informazioko sistemarekin lotuta edo integratuta egongo da. Ondorio horietarako, eta Udal honi dagokionez, aipatutako erregistroa SAREKO aplikazioaren fakturen erregistroak osatuko du.

Faktura elektronikoen sarrera-puntu orokorrean aurkeztutako faktura elektronikoak fakturan agertzen den kontabilitate-bulegoaren arabera dagokion fakturen kontabilitate-erregistroa bidaliko dira elektronikoki, puntu horretan emandako zerbitzu automatiko baten bidez. Gainerako fakturak BAZetik Kontu-hartzaitzara igorriko dira fakturen kontabilitate erregistroan jasotzeko.

Faktura fakturen kontabilitate-erregistroan idatzi ondoren, faktura horren identifikazio-kodea esleituko da aipatutako kontularitza-erregistroan. Faktura elektronikoen kasuan, kode hori faktura elektronikoen sarrera-puntu orokorrari jakinaraziko zaio.

Kontu-hartzaitza Zerbitzuak organo eskudunari igorriko dio edo haren esku jarriko du, hala badagokio, faktura egin zuenak emandako ondasunarekin edo emandako zerbitzuarekin bat datorren prozedura izapidetzeko eta betebeharra aitortzeko espedienteari buruzko gainerako jarduketak egiteko.

Dagokion organo eskudunak betebeharra aitortu ondoren, proposamenaren edo ordainketa-aginduaren kontabilitate-izapidetzeak faktura edo fakturak identifikatuko ditu kontabilitate-erregistroan esleitutako identifikazio-kodeen bidez.

## **III. TITULUA: “SARRERAK”**

### **40. artikulua.- Diru-sarrera gauzatzea**

Aurrekontu-ekitaldiari egotziko zaizkio ekitaldi horretan aitortutako eskubideak, edozein dela ere eskubide horien jatorria.

Honako fase hauetan egingo da sarreren aurrekontuaren kudeaketa:

- a) Sarrera aitortzea (R)
- b) Sarrera kobratzea (I)

Sartzeko konpromiso irmoa da edozein erakunde edo pertsona, publiko zein pribatu, udal-erakundearekin egindako akordio edo itun baten bidez gastu jakin bat osorik edo zati batean finantzatzera behartzea, modu garbian edo baldintzatuan, eta, hala badagokio, bere gain hartutako betebeharrak bete direnean, udal-erakundeak eska dezakeen kobrantza-eskubidea sortzea.



#### **41. artikulua.- Eskubideak aitortzea**

Eskubideak aitortuko dira Udalaren aldeko likidazioa egin dela jakin bezain laster. Likidazio hori Korporazioak berak, beste administrazio batek edo partikularrek egin dezakete. Zehazki, hurrengo puntuetako arauak beteko dira.

- Aldez aurreko hartukizunaren likidazioetan, eskubidearen aitortzea kontabilizatuko da, dagokion likidazioa onartzen denean.
- Aldez aurreko hartzekoen likidazioetan, aldizkako sortzapena badute, errolda onartu ondoren kontabilizatuko da eskubidearen aitortzea.
- Autolikidazioetan eta aldez aurretik hartu gabeko diru-sarreretan, horiek aurkezten direnean eta horien zenbatekoa ordaintzen denean.
- Baldintza jakin batzuk betetzekotan beste erakunde batetik jaso beharreko dirulaguntzen edo transferentzien kasuan, erakunde horren konpromisoa jasoko da, erabaki formala (dirulaguntza ematea) hartzen den unetik aurrera. Diru-laguntzari dagokion zenbatekoa udal-diruzaintzan sartzerakoan, eskubidea aitortu eta kobrantza kontabilizatuko da (“RP”).
- Zerga itunduetan (Udal Finantzaketarako Foru Funtsa) eta itundu gabeetan duten partaidetzari dagokionez, ekitaldiaren hasieran diru-sarreraren konpromiso gisa kontabilizatuko da kontzeptu honengatik diru-sarreraren aurreikuspena.
- Hitzartutako maileguetan, kontratua onartzen denean, konpromisoa kontabilizatuko da. Ondoz ondoko erabilerak gauzatu ahala, eskubidearen aitortzea eta dagozkion zenbatekoen kobrantza kontabilizatuko dira. Interesen eta bestelako errenten kasuan, eskubideak sortzen diren unean bertan aitortuko dira eskubideak.

#### **42. artikulua.- Kobrantzak kontabilizatzea**

Diru-bilketako kontuetan sartutako zenbatekoak, aldez aurreko hartzekoen likidazioei dagozkienak, aurrekontu-aplikazioak ez ezagutzeagatik formalizatu ezin diren bitartean, aplikatzeko dauden sarrera gisa kontabilizatuko dira.

Autolikidazioetatik eta aldez aurretik hartu gabeko sarreretatik, Zuzenbide pribatuko dirulaguntza eta sarreretatik datozen diru-sarrerak zuzenean aplikatuko zaizkie aurrekontu-kontzeptuei.

### **IV. TITULUA: “AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA”**

#### **43. artikulua.- Aurretzako eragiketarako gastuen egoera-orrian**

Ekitaldiaren amaieran, obligazioaren aitortzea dakarten udal-erabaki guztiek "O" fasean kontabilitate-izla izan dutela egiaztatuko da.

Kudeaketa-zerbitzuek kontratistek eskatuko diete fakturak aurkezteko ekitaldian bertan, eta, betiere, uneko ekitaldiko abenduaren 31 baino lehen.

Ekitaldiko azken egunean aitortutako obligazioak betetzera atxikita ez dauden gastuetarako kredituak baliogabetuta geratuko dira.

#### **44. artikulua.- Aurretzako eragiketarako gastuen egoera-orrian**





Abenduaren 31ra arte egindako kobrantza guztiak itxitako aurrekontuan aplikatu behar dira. Sarrera-kontzeptu guztietan egiaztatuko da eskubide-aitorpenaren kontabilizazioa.

#### **45. eskubidea.- Kobragaitzak edo kobraezinak diren kobratu gabeko eskubideak:**

Diru bihurtzeko zailak edo ezinezkoak diren eskubideak zehazteko, honako hauek hartu beharko dira kontuan: zorren antzinasuna, haien zenbatekoa, diru-sarrera mota, diru-bilketaren ehunekoak, bai borondatezko aldiari, bai betearazpen-bidean, eta toki-erakundeak ezartzen dituen gainerako balorazio-zuhurtasuneko irizpideak. Dena dela, behar bezala aintzatetsi eta kontuan hartu eta 24 hilabete baino gehiagoko antzinasuna duten eskubideak kobragaitzat edo kobraezintzat hartuko dira, behar bezala bermatuta egon eta likidatu eta hurrengo ekitaldian kobratzea aurreikusten bada izan ezik, orduan ez baitira eskubide horiek kendu beharko”. Zorren antzinasuna, zenbatekoa, diru-sarrera mota eta bilketaren ehunekoak kontuan hartuta hornituko da.

#### **46.-artikulua.- Aurrekontua ixtea**

Aurrekontua abenduaren 31n itxi eta likidatuko da.

Likidazioa frogatzen duten egoera-orriak eta gerakinak sartzeko proposamena hurrengo ekitaldiko martxoaren 31 baino lehen egin beharko dira.

Toki-erakundeko presidenteak onartuko du aurrekontuaren likidazioa, eta osoko bilkurari emango dio horren berri.

## **V. TITULUA: “ KONTROLA ETA FISKALIZAZIOA ”**

#### **47. artikulua.- Barne-kontrolako modalitateak**

Udalaren kudeaketa ekonomiko-finantzarioaren barne-kontrola honako modalitate hauetan egingo da:

- Kontu-hartzailletza.
- Finantza-kontrola, etengabeko kontrolaren eta auditoretza publikoaren bidez.

#### **48. artikulua.- Kontu-hartzailletza**

Kontu-hartzaileak Udalaren aurrekontu kudeaketa ekonomiko-finantzarioaren kontrola eta barne fiskalizazio eginkizunak gauzatu behar ditu. Hala ere, Udalaren mendeko Merkataritza Sozietatean, eta Arma Plazari dagokionez, kontrol finantzarioaren eginkizunak beteko ditu, auditoretza publikoaren bidez.

#### **49. artikulua.- Aldez aurretik fiskalizatu behar ez diren gastuak**

Gipuzkoako tokiko sektore publikoko entitateen barne-kontrolaren araubide juridikoa arautzen duen abenduaren 27ko 32/2018 Foru Dekretuan xedatutakoaren arabera, honako gastu hauek ez dira aldez aurreko fiskalizazioaren mende egongo, honako ARAU hauen arabera:

- a). Sektore Publikoko Kontratuen Legean araututako kontratu txikiak.
- b). Material inbentariaezinez hornitzeko kontratuak.



- c). c). Aldizkako kontratuak eta segidako traktuko gainerako kontratuak, horiek sortu dituen egintza edo kontratuaren hasierako aldiari edo haren aldaketei dagokien gastua eta gaur egun indarrean daudenak atzeman ondoren.
- d). d) 3.005,00- €-tik beherako gastuak, kutxa finkoko aurrerakinaren bidez egiten badira.

Larrialdietarako dirulaguntzak ez dira aldez aurretik ikuskatuko.

Kasu horietan, kontu-hartzaitzako organoak egokitzat jotzen dituen ohar osagarriak egin ahal izango ditu, baina ohar horiek ez dute inola ere etete-ondoriorik izango.

### **50. artikulua.- Aldez aurretik fiskalizatu beharreko gastuak**

Gainerako gastuetarako, **oinarrizko betekizunen aldez aurreko fiskalizazio mugatua** ezartzen da. Oinarrizko betekizunei dagokienez, gastuak sortzen dituzten eduki ekonomikoko egintza guztien aurretiazko fiskalizazioa eta kontu-hartzaitza honako oinarrizko alderdi hauek egiaztatzea eta egiaztatzea mugatuko da:

- Aurrekontu-kreditua dagoela eta proposatutakoa egokia dela. Kreditua egokitzat jotzen da tokiko erakundearen diruzaintzaren kargura hartzekoak diren edo sortu diren baina preskribatu ez diren obligazioak finantzatzen baditu, horretarako legez ezarritako baldintzak betez.
- Atxikitako finantzazioa duten gastuak direnez, finantzatzen dituzten baliabideak betearazleak direla eta haien eraginkortasuna dokumentu frogagarriekin egiaztatzen dela.
- Konpromiso-kredituak direnez, 21/2003 Foru Arauan ezarritakoa betetzen dela.
- Atxikitako finantzaketarik gabeko aldez aurreko izapidetzea denez, ABBPn jasotzen dela gastua baimentzea aurrekontuan baimentzen den ekitaldirako kredituaren mende egongo dela.
- Atxikitako finantzaketa duen aldez aurreko izapidetzea denez, ABBPn jasotzen dela gastu-baimena aurrekontuan baimentzen den ekitaldirako kredituaren eta finantzaketaren irmotasunaren mende egongo dela.
- Gastua organo eskudunak sortzen duela.

Gainera, honako hauetan gastu mota bakoitzerako jasotako baldintzak betetzen direla egiaztatu beharko da: **Ministro Kontseiluaren 2008ko maiatzaren 30eko Erabakian, oinarrizko betekizunen araubidean kontu-hartzaitzako eginkizuna betetzeari dagokionez; Ministro Kontseiluaren 2018ko uztailaren 20ko Erabakian, sektore publikoko kontratuen eta bitarteko propioei egindako enkarguen esparruan oinarrizko betekizunen araubidean kontu-hartzaitzako eginkizuna gauzatzeari dagokionez; eta Ministro Kontseiluaren 2021eko ekainaren 15eko Erabakian, zeinaren bidez aplikatzen baita Aurrekontuen Lege Orokorren 152. eta 147. artikuluetako aurreikuspena, oinarrizko betekizunen araubidean kontu-hartzaitzako eginkizuna gauzatzeari dagokionez.**

Horretarako, aurrekontua gauzatzeko arau honekin batera eranskin bat doa, indarraldi mugagabez hornitua, "HONDARRIBIKO UDALAREN OINARRIZKO BETEKIZUNEN ARAUBIDEAN FISKALIZAZIOA ETA ESKU-HARTZE MUGATUA GAUZATZEKO GIDA" izenekoa. Eranskin horretan jasotzen dira Udal Kontu-hartzaitzak egiaztatu beharreko oinarrizko betekizunak, oinarrizko betekizunen araubidean egindako fiskalizazioan eta kontu-hartzaitza mugatuan.



### **51. artikulua.- Kontu-hartze materiala**

Kontu-hartzaileak inbertsioaren egiaztapen materiala egingo du inbertsioaren zenbatekoa 50.000,00 eurokoa edo hortik gorakoa bada, BEZik gabe. Horretarako, organo kudeatzaileek inbertsioaren egiaztapen materialerako laguntza eskatu beharko diote erakunde kontu-hartzaileari, dagokion inbertsioa jasotzeko aurreikusitako eguna baino 20 egun lehenago gutxienez.

### **52. artikulua.- Sarrerren fiskalizazioa**

Toki erakundearen eskubide eta dirusarrerren aldez aurreko fiskalizazioaren orde, kontabilitate zentzupenari datxekion kontrola ezartzen da, eta, hala badagokio, ondorengo kontrola, finantza kontrola eginez.

### **53. artikulua.- Finantzen eta eraginkortasunaren kontrola**

Auditoretza-tekniken bidez, Finantza Kontroleko Urteko Planean zehaztutako gastuen lagin baten gainean, finantza-kontrola egingo da, eta horren emaitzak urteko kontrol-txostenean jasoko dira.

### **54. artikulua.- Fiskalizazio-txostenak egiteko epea**

Kontu-hartzaileak, oro har, Kudeaketa Arloek igorritako espedienteak fiskalizatuko ditu, gehienez ere bost egun balioduneko epean, espedienteak jaso edo Kontu-hartzailetzaren Erregistroan jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

### **55. artikulua.- Eragozpenen araubidea**

Kontu-hartze eginkizuna betez organo kontu-hartzaileak adierazten badu ez dagoela ados aztertutako egintza, agiri edo espedienteen mamiarekin edo formarekin, bere eragozpenak idatziz azaldu beharko ditu. Eragozpena gastuen onarpenari edo xedapenari, betebeharren aitorpenari edo ordainketen aginduari badagokio, espedientearen izapidetzea etengo da, baldin eta Aurrekontua Gauzatzeko Arau honen 51. artikuluan aurreikusitako baldintzaren bat betetzen ez bada, harik eta eragozpena konpontzen den arte.

Eragozpena zuzentzen zaion organo kudeatzaileak onartzen ez badu, desadostasuna proposatuko dio Alkateari, eta azken horrek ebazpena emango du. Eskumen hori ezin izango da eskuordetu.

Aurreko paragrafoan xedatutakoa gorabehera, Osoko Bilkurari dagokio desadostasuna ebaztea, eragozpenak egiten badira:

- kreditua nahikoa edo egokia ez delako.
- Bere eskumenekoa den obligazio edo gastuei buruzkoak izanik.

Eragozpenak jaso eta hamabost eguneko epean, desadostasunak Toki Erakundearen presidenteari edo osoko bilkurari aurkeztuko zaizkio, dagokionaren arabera. Desadostasuna idatziz arrazoitu beharko da, bere irizpidearen oinarri diren lege-aginduak aipatuz.

Desadostasuna ebatzita espedientea izapidetzen jarraitu ahal izango da, eta horren ebazpena hamabost eguneko epean eman beharko da, eta izaera betearazlea izango du.

Aurrekontu Orokorra onartzerakoan, organo kontu-hartzaileak Udalbatzara eramango du gauzatutako eragozpenaren aurka Alkateak harturiko ebazpenei buruzko txostena. Toki Erakundeko Udalbatzari jakinarazi



ondoren, organo kontu-hartzaileak urtero Herri Kontuen Euskal Epaitegira bidaliko ditu egindako eragozpenen aurka Toki Erakundeko presidentek eta Udalbatzak hartutako ebazpen eta akordio guztiak.

#### **56. artikulua.- Kontu-hartzailetzako eginkizuna ez betetzea**

Lurralde historikoko tokiko sektore publikoko erakundeen barne-kontrolaren araubide juridikoa arautzen duen Foru Dekretuaren 28. artikuluan ezarritakoaren arabera izapidetuko da.

Fiskalizazioa egin ez zaion eduki ekonomikoko egintza onartzeko eskumena duen organoaren aldeko erabakiak ez du salbuetsiko, hala badagokio, erantzukizunak eskatzetik.

#### **57. artikulua.- Finantza-kontrolaren plangintza**

Urtero, kontu-hartzailetzako organoak Finantza Kontroleko Urteko Plana egingo du. Plan horren berri eman beharko zaio Osoko Bilkurari, eta lurralde historikoko tokiko sektore publikoko erakundeen barne-kontrolaren araubide juridikoa arautzen duen Foru Dekretuaren 31. artikuluan ezarritakoaren arabera izapidetu beharko da.

#### **58. artikulua.- Finantza-kontrolaren emaitzak**

Urtero, organo kontu-hartzaileak finantza-kontrolari buruzko txosten bat igorriko dio osoko bilkurari, presidentearen bidez, Finantza Kontrolaren Urteko Planean ezarritakoaren arabera.

#### **59. artikulua.- Ekintza Plana**

Aurreko artikuluan aipatutako barne-kontrolako txostena igorri ondoren, toki-erakundeko lehendakariak ekintza-plan bat formalizatuko du, gehienez ere 3 hilabeteko epean.

### **AZKEN XEDAPENA**

Aurrekontua Gauzatzeko Arau-proiektu hau behin betikotzat joko da, eta Osoko Bilkurak onartzen badu aplikatuko da, eta aurrekontua indarrean dagoen bitartean baino ez da aplikatuko. Kontrola eranskina izan ezik, indarraldi mugagabea baitu.